

PATRIARKATUAREN ERAGINA ELIZAN

Humanook geure historian hedatuak gara planeta honetako ia paraje gehienetara, eta hasieratik, esan daiteke, kultura molde diferenteak garatu ditugu, topatu ditugun lurralde moten arabera neurri handian (materialismo kulturalak hori ondo-rioztatzen du), eta errebelazioaren historiaren hasiera izan da ekialdeko kulturaren, kultura hori aukeratu zuen hor nonbait gure Jainkoak, nahiz eta sekula ez den aurkituko liburu santuetan horregatik kultura hori unibertsala dela. Unibertsala ez da izango baina galdera hau egin daiteke: zergatik gure Jainko onak aukeratu zuen ekialdeko kultura. Nik daukat ezen inork ez dakiela zehazki zergatia, baina ezin duda daiteke jakinduria handia, jakinduriarik handiena ere, dagoela erabaki horren zergatian, arrazoian.

Jakinekoa da nola kulturen arragoan ekialdeko kultura dela gaiztoena, eta agian horregatik Jainko onak aukeratu zuen Bere errebelazioa kultura horretan gauzatzea lehenbizi. Jesusek, errebelazioaren bururatzera, badu esaten Bera etorria dela gaixoak artatzera, galduak, osasuntsu daudenek ez dutelako medikuaren beharrik. Jesusek hori esan zuen, baina nik daukat ezen ekialdeko kulturaren hautuaren azken arrazoa misterioa dela bere funtsean.

Izanik ekialdeko kultura kulturen arragoan gaiztoena ni kultura horren kontra predispuerto nago. Badizkiot bertuterik ere ikasten baina hala ere ni ez nago kultura horren aldeko larregi, konprenitzen badut ere nire eskarmentu humanoaz.

Horregatik nik bilatzen dut aurrerapen etiko politikoa, ez baina kultura tropikaletara, eta bai dut bilatzen halako erdiko neurria.

Noan orain zer defektu nagusi ikusten diodan ekialdeko kulturari. Bere jatorria desertuetan dago, ez dago zalantzarik, irudi hori etortzen zaigu burura orienteaz hitz egiterakoan, eta duen ezaugarri nagusietakoa da gerra bere barnean teorizatua izan dela usualki unibertsal bezala, beraz erremediorik ez duen arazoa da elkarren arteko etsaitasuna ekialdeko kulturean. Eta hor argumentu nagusia ere, filosofoek estudiantua, argumentu ad baculum da, indarraren argumentua, zeina baita falaziazkoa, falazia ad baculum bezala ezaguna.

Horregatik dira emazteak baztertuak eta bigarren maila batean ezarriak. Emazteak, flakuak eta gaixoak, eta umeak ere. Orain emakumeen arazoa ikertzen dihardut. Eta aurkitua dut non dagoen arazo horren muina, funtsa, falazia batean, hain zuzen.

Gu, humanook, izaki arrazionalak gara, eta gure baitan burua da inportanteena, intelektua, eta bizitzarik gorena bizitza intelektiboa omen da, eta da. Behin ekonomia ondo saneatuz gero horretara dedikatzea, arrazoia erabiltzera. Falaziak alde batera utziz, eta falazien artean hor dugu falazia ad baculum delakoa, ekialdeko kulturean egin den historiari inportanteena, gehien nabarmentzen dena, falazia horren gainean eraikia da, faltsuan egin da hitz batean errateko. Ordua da, diot nik, horretaz ohartu gaitzen, horren tamainaz ohartu gaitzen. Behintzat, lehen momentuan, ohartu pixka bat. Gero lanean jarri falazia hori desmuntatzeko, gure arteko harremanak izan daitezkeen filosofia buru izanik, egiaren bilatzea buru izanik. Soberan daude falaziak halako gizartean, eta bat detektatuz gero, ondo estudiantu eta gero, bazter utzi behar da, Iparraldean esaten den moduan: jestu guttiz, gainera.

Bueltatuz Elizaren barruko arazo domestikoetara, nik erran behar dut ezen Jesusek gizonak aukeratu zituela, hori egia da, baina sekula ez zuen erran emakumerik ez zuela nahi. Nonbait nik hor ikasten dut Jesusek fundatutako Eliza egokitu egiten dela dagoen inguru kulturalera (Vatikano bigarrenak ere hori gomendatzen du), eta Jesusek ezin zuela besterik erabaki, baina emakumeen kontrako esaldirik ere ez zuen erran, ez zuen ezer espliziturik erran emakumeez, emakumeen funtzioaz Bere Elizan. Eta tradizio patriarkala nagusi da gaur egunetara arte gure Elizan. Santa Teresak zioena, lapiko eta zartaginen artean ere egiten ahal zela otoitz. Hara hor emakumeak, mojak, zein betebegar zuen, eta du, Elizaren ordenamenduan.

Nik proposatu egingo nuke, alde batetik ez dugula ahaztu behar ekialdeko kulturaren bete-betean gaudela (kapitalismoa niretzat ekialdeko kulturaren adartze bat besterik ez da), baina, beste aldetik, gaur egun feminismoak indar handia duela, behintzat teorikoa, eta erdiko neurriaren bila gabiltzanok, pixka bat atereaz ekialdeko kulturatik, lanaren kultura oparo baterantz, guk proposatzen ahal dugu, adibidez, moja izateko filosofia eta teologia ikasi beharra, abadeendako dagoen moduan. Besterik ez dut proposatzen, soilik horrekin batera apurtzea Elizako hierarkian falazia ad baculum delakoarekin, eta praktikan gainera. Holaxe lan fisikoa tokatzen ahal zaio edozeini, izan gizon ala emakume, eta lan teorikoa ere edozeini, izan gizon ala emakume.

Ahaztu barik ekialdeko kulturaren gaudela, eta beraz hamaika kontradikzioarekin topatzen ahalko garela geure bide malkartsuan, ez baita erraza egiaren bila aritzea falaziak oro albo batera utziz ezinbestean, derrigortuta, gure estudioaren naturalezak derrigortuta.

Roman Garmendia